

# Udal talde politikoaren iritzia



## GETXO, EMOZIOEN ETA SORMENKO ABANGOARDIAREN ANTZOKIA

Getxok kulturarekin eta sormen kulturalarekin duen konpromisoa eta lotura, tradizionala nahiz abangoardiari handienekoa, ukazina da eta, gainera, gure herriak aspalditik nabarmentzen duen erakunde- nahiz gizarte-sarearen emaitza da. Hori dela eta, Getxoko EAJ-PNV alderdia eta Amaia Agirre bere talde osoarekin urtetan egon dira kulturaren aldeko apustu argia eta nabarmena egiten.

Pandemia bat jasan dugu, eta horren ondoriozko osasun-betebeharrek eragina izan dute ere Getxoko kulturaren esparruan. Alabaina, Covid gaitzaren osteko une honetan, Getxoko Udalak, Kultur Etxearekin eta Musika Eskolarekin elkarlanean, garairik latzenetan eta ondorengo hilabeteetan ere duen eskaintza ikusi eta gozatu dezakegu orain. Ezohiko laguntza ekonomikoak, egitarau bereziak eta erakundeek egokitutako hedabideak, sortzaileen taldeak, eta kultura gehien zaindu duten eta zaintzen jarraitzen duten pertsonak edo kolektiboak.

Getxo Sormen HUB ere agertzen da



sormeneko abangoardiaren baitan, sormen kulturalari lotutako emakume eta gizonek edo kolektiboek lan egiteko, elkartzeko eta Getxon eta Getxotik etorkizun berezia bermatuko diguten sinergiak eta sareak sortzeko espazioak aldetik.

Horren harira, azpimarratu behar dugu jai-batzordeekin egindako lana eta, noski, aipatzekoak dira Muxikebarrik, Musika Eskolak eta Romo Kultur Etxeak getxoztar guztioi duela zenbait urtetatik eskaintzen dizkiguten proposamen apartak eta egitarau

zoragarriak.

Izan ere, Getxok merezi duenarekin bat datozen espazio bikain horietan kultur adierazpen zoragarriez gozatzeko aukera dugu; halaber, haien ezaugarriek egokitutako espazioak behar dituzten kalitate handiko proposamenetarako beste formatu batzuk ere ditugu eskuragarri. Ildo bereetik, gure udalerriko sortzaileek mota ugariako proposamenak eskaintzen dizkigute, gure mugez haraindi helzen baikara tradizioarekin edo abangoardiarekin, musikarekin, dantzarekin, antzerkiarekin, zinemarekin, arte plastikoekin edo askotariko arte eszenikoekin, literaturarekin eta abarrek. Hau da, funtsean, esan daiteke urrunera heldu garea kulturarekin oro har. Zoritxar-igarleak eta katastrofistak egon arren, esparru teknikoari nahiz artistikoari dagokienez espazio zoragarriak ditugu.

Getxo, emozioen eta sormeneko abangoardiaren antzokia: EAJ-PNV taldeak Getxo udalerriarekin duen konpromiso amaigabea.



## AIBOAN KAMIOI ETA PRODUKTU TOXIKOAK EGOTEARI EZ



Orain Martikoan dauden obren udal-lantaldeak eta -zerbitzuak Aiboaberrira (Getxo 2 institutuaren antzinako eraikina, alegia) lekualdatzeko asmoa du gobernu-taldeak. Lekualdaketa horrek eragingo du bizitegi-zona batera eramatea garbiketa-makinak, erratz-makinak, produktu sukoiak eta toxikoak, bai eta zarata, zikintasuna nahiz bizilagunentzako eragozpen handiak ere. Horri guztiari gehitu behar zaio arrisku han-

dia eragiten duela ingurutik kamioi handiek zirkulatzeak, espaloiak eta bidetorriak zeharkatu beharko dituztela kontuan hartuta. Azken finean, osasungarritasun-eza eta arriskua eramango dira orain lasaia den bizitegi-zona batera. Horrenbestez, eskatu nahi dugu aipatutako lekualdaketa berehala eten dadin, eta proposatzen dugu bizitegi-erabilera gutxiago duen eta hirigunetik urrunago dagoen zona batera eramatea. #esnatoGetxo



## ALGORTAKO MUGIMENDU FEMINISTA KRIMINALIZATZEKO SAIKERA

Azaroaren 3an, Algortako Mugimendu Feministako bi kidek Getxoko epaitegian deklaratu beharko dute Ertzaintzak salaketa jarri zielako, abuztuaren 14ko goizaldean, Portu Zaharreko jaietan, ziztada jaso zuen emakume bat anbulantziara eramateko oztopoak jarri zituztelakoan.

Hala ere, Algortako Mugimendu Feministak abuztuaren 17an agerraldi jendetsuan plazaratutako komunikatuan argi esan zuen eurek protokoloa jarraitu baino ez zutela egin eta erasotzarekin eta bere familiarekin adostuta eman zituztela urrats guztiak. Izan ere, eurek izan ziren neska gaztea txosnara heltzean artatu zutenak, 112ra deitu eta, gaztearen berbiktimizazioa saihestu nahian, Ertzaintzarekin anbulantziara zelan eraman adostu zutenak. Kide feministen ezusterako, ertzainek identifikatu

zituzten eta desobedientzia delitua leporatu zieten.

EH Bilduk argi esan nahi du gertatutakoa Mugimendu Feminista kriminalizatzeko eta euren lana oztopatzeko saiakera baino ez dela eta indarkeria matxistan egon beharko lukeen fokoa desbideratu baino ez duela egiten.

Deklaratzera deitu dituzten kideei elkartasuna adierazi nahi diegu, eta Mugimendu Feministari eskerrak eman jendarte askeagoa sortzeko egunero egiten duten lanagatik. Azaroaren 3an 19:30ean Telletxen hasiko den manifestazioan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu, guztiok batera Mugimendu Feminista babestu eta euren lanari aitor-tza egiteko.

Gora Algortako Mugimendu Feminista!  
Gora Borroka Feminista!



## ALGORTAK ZAHARTZE AKTIBOKO ESPAZIO BERRIA ESTREINATU DU

Urgull Zentroa errealitatea da jada. PSE-EE taldeko kideok nabarmendu nahi dugu **coworking-erako espazio berria** ireki izana beheko solairuan, bai eta solairu nagusian **komunitate-harremana** bultzatzeko espazioa gaitu izana ere; horren bidez, gure **gazteen ekintzailatza eta gure nagusien zahartze aktiboa bultzatuko dira, belaunaldiarteko trukea** ahalbidetzen duen tokian. Konpromiso hori gobernu-taldearen (EAJ eta PSE-EE) 2020-2023ko legegintzaldi-planean jasota dago, eta erantzuna ematen die ere **Ajane elkarteko gure nagusiek dituzten beharraz**; izan ere, Algortako adinekoen egoera fisiko eta emozio-



nala hobetzeko jardura ugari sortzen dituzte bertan, eta horiek baliagarriak dira kasu askotan **adinekoek nahi gabe daukaten bakardadea prebenitzeko**.



## HERRITARREN PARTE-HARTZE HANDIAGOA HAPON

Egun batzuk daramatza irekita HAPOa jendaurrean jartzeko eta alegazioak aurkezteko epea. Urtarrilaren 15era arte mantenduko da soilik; gure ustez epe hori ez da nahikoa herritarrek aktiboki eta informazioarekin parte hartuko dutela bermatzeko. Horrenbestez, azken osoko bilkuran proposatu genuen epe hori beste hilabete batzuetan luzatzea, baina gobernu-taldeak ez zuen eskaera onartu. Horrez gain, uste dugu material

argiakoak behar direla herritar guztiek ulertu dezaten zeintzuk diren proposatzen diren aldaketak eta jakin dezaten aldaketa horiek euren izango dituzten eraginak. Mota horretako prozesu konplexuak herritarrak eta adostasuna oinarri hartuta egin behar dira. HAPOri buruzko herritarren kontsulta bota dugu faltan, getxoztarrek beren etorkizuna erabaki dezaten. [elkarrekin-podemos@getxo.eus](mailto:elkarrekin-podemos@getxo.eus)